



Usurbilgo Udala

2018KO MAIATZAREN 10EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Gartzia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Ezin-etorria adierazi du: Mirari Azurmendi Sorazu

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2018ko maiatzaren 10ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- USURBILGO UDALA ETA ZUMARTE MUSIKA ESKOLAREN ARTEKO HITZARMENA.

ALKATEA: Gaurko Udalbatza plenoa ezohikoa da, Zumarteri dagozkion bi puntu ditugu. Lehenengoa Usurbilgo Udala eta Zumarte Musika Eskolaren arteko hitzarmena. Horren berri Alaitzek emango du.



Usurbilgo Udala


ALAITZ AIZPURUA: Hezkuntza Batzordean diktaminatuta dator. Zumarte Musika Eskola uste dut 86tik martxan dagoela eta oker ez baldin banago lau urtez behin sinatu izan dugu gutxi gorabehera beraiekin hitzarmena. Azkenekoa 2014an sinatu zen apirilak 15ean eta berriz ere aurten tokatzen da Zumarterekin hitzarmena berritzea.

Bi helburu izaten ditu edo behintzat Udalaren aldetik, batetik, diru-laguntza erregimena arautzea edo hitzartzea eta ze diru-laguntza eman zaion eta, bestetik, lokalaren edo kasu honetan lokalen lagapena ere arautzea. Lokalen gaiarekin orain *in pass* moduan gaudela esan genezake, aurreko hitzarmenean ere aldatu zen lagapenaren kontua, azken kurtsoan behintzat ohiko eraikinetik kanpo daudelako. Zati bat ikastolaren eraikinetan baina, besteak, Puntapaxko udal lokalean daudelako eta baita Santueneako frontoiko lokalean. Orduan, aldaketa hori aurreko hitzarmenean egin zen eta hemen ere hala jasotzen da lagapena, bi lokal horiena, prekarioz egiten dela. Hori dela eta, hitzarmenaren iraupena ere izango da obra egin eta ekipatzen den arte, beti ere, aurreikusten 2019-20 ikasturtea izango dela. Edozein modutan, jarri da gehienez ere, lau urteko iraupena izango duela, beti egin izan den bezala, baina, aurreikuspena da behin eraikin eta ekipamendu berritan daudenean hitzarmena berriz ere berritzea eta haren arabera egitea.

Diru-laguntzei dagokionean, beti helburua izan da nolabait Zumarteren aurrekontuaren hiru zati izaten dira, Udalak finantzatzen duena, Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duena eta kuoten bidez edo gurasoek finantzatzen dutena. Heren bana aurreikusten da eta hori jartzen da helburutzat, eta horren arabera, udaletxeak 50.000 euro urtean, %33ko tope horrekin. Normalean aurrekontua gehiago izaten da, beno hortxe ibiltzen da, eta 50.000 euro horiek izaten dira. Aurreko hitzarmenean gradualki joan ginen igotzen urtez-urte 49.500 euro arte azkeneko urtean, uste dut 44.000 eurotik igotzen joan zela, pixka bat helburu hori lortze aldera. Orain, Udalaren aldetik behintzat %33 horretara iritsiko ginateke 50.000 euro horiekin. Hor egia da baita ere Eusko Jaurlaritzaren aldetik momentu honetan Zumartek jasotzen duen diru-laguntza ere badagoela modifikazio fasean esango genuke, beraien afera daukate hor. Badaudelako musika eskola publikoak eta elkarte pribatuak eta diru laguntza deialdi berdinean baino bi poltsatan banatzen dira. Horrekin dabilta eta horrekin ere pixka bat pendiente badabilta ea finantzaketa hori nola geldituko den, momentuz horrela joango da.

Gero urtero aurkezten dute dokumentazioa, hor dago izendatuta, diru-sarrera eta irteerak, irakasleen kontratuak, urtero aurkezten dute otsailak 15a baino lehen aurreko urteko memoria eta aurreikuspena. Eta horren arabera, diru laguntza bideratzen da. Aurten beste diru-laguntzetan bezala, saiakera berezi bat egin da ikuspegi parekide hori, lehen ere bazegoen eta araua ez da berria, ba datu bilketa egiteko orduan eta argazkia edukitzeko orduan aldagai horiek kontutan hartzea, eta horrek ere badu erreflejoa hitzarmenean.

Bestetik, beste aldaketa txiki bat egin dena da, hau ere legeak hala eskatzen du, adin txikikoekin lanean dabiltzan begirale-irakasleak izanik, sexu delituen berriazko zigor aurrekari zurratzeak eskatzen zaie, eta hori ere txertatu da. Gainontzean esan beraiekin batera landutako hitzarmena dela.



Usurbilgo Udala

ALKATEA: Baduzue zerbait esateko edo galdetzeko?

Orduan, bozketara pasako gara.

Batzarkideek, Garapen eta Hezkuntza batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zb.:HE.04/2018-0007

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2008ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Udala honek ematen dituen diru-laguntzak arautzeko Ordenantza onartu zuen.

Ordenantza honen III. Kapituluko 2. atalean Hitzartutako diru-laguntzen prozedura zehazten da Usurbilgo Udalak diru-laguntzak emateko duen bideetako bat bezala. Arautegi honen barruan, besteak beste, irabazi asmorik gabeko talde batzuei laguntza hitzartuak emateko asmoa dago, beraiekin hitzarmena sinatu ostean.

Horietako bat, “ZUMARTE MUSIKA ESKOLA” deituriko Elkarte da.

Zumarte Musika Eskolak, urteetan herrian musika irakaskuntzan lan handia egin du, eta beharrezkoa ikusten da Udala eta Zumarte Musika Eskolaren arteko harremana hitzarmen batean jasotzea.

Modu honetara, 2014eko apirilaren 15ean Usurbilgo Udalak hitzarmena sinatu zuen Zumarte Musika Elkartearekin lau urteko iraupenarekin.

Orain epe hori amaiturik, hitzarmen berria sinatzeko beharra ikusi da.

Hitzarmen honen helburua bikoitza da:

- Usurbilgo Udalaren aldetik: Zumarte Musika Eskolarekin dirulaguntza-erregimena eta prekarioz lagatuko dizkion lokalaren erabilpena arautzea.
- Zumarte Musika Eskolaren aldetik: Usurbilgo udalerrian eta, bereziki, Usurbilgo biztanleriaren artean, musika irakaskuntza sustatzea.

Kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Herri Administrazioetako diru-laguntzak arautzen dituen.
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen Ordenantza. (GAO 2008-07-01)
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa.
- Udal idazkariaren txostena



Usurbilgo Udala

2018ko apirilaren 26an egindako Garapen Ekonomiko eta Hezkuntza Batzordean irizpen honen proposamena aho batez onartu zen Alaitz Aizpurua, Josune Estella, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echeverriaren aldeko botoekin.

Honenbestez, Garapen Ekonomiko eta Hezkuntza Batzordeak aho batez, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Usurbilgo Udalak eta Zumarte Musika Eskolak izenpetuko duten hitzarmena onartzea, agiri honi eransten zaiolarik.

Bigarrena: Hitzarmenaren iraupena Zumarte Musika eskolaren egoitzaren obrak amaitu eta ekipatu ondoren erabiltzen hasten den artekoa izango da, 2019-2020ko ikasturtea aurre ikusten delarik, hala ere gehienez ere lau urtekoa izango da.

Hirugarrena: Hitzarmen honen indarraldia, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean hasiko da.

Laugarrena: Usurbilgo Udalak urtero, aurrekontu partidan hitzarmen honi aurre egiteko adinako dirua jartzeko konpromisoa hartzen du.

Bosgarrena: Hitzarmenaren berri interesatuari, udal-ondare arduradunari eta kontu-hartzaileari emango zaio.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

2.- ZUMARTE MUSIKA ESKOLA BIRGAITU ETA HANDITZEKO OBRA KONTRATUA ESLEITZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA: CONSTRUCCIONES MOYUA, SL-K EGINIKO ESKAINTZA IZENDATZEA ESKAINTZA BAKAR ETA HORTAZ ESKAINTZA EKONOMIKO ONENA.

ALKATEA: Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko obra kontratua esleitzeko kontratazio espedienteari dagokio. Hor Construcciones Moyua enpresak egindako eskaintza izendatzea eskaintza bakar eta hortaz eskaintza ekonomiko onena izan delako.

Orduan, dakizuen bezala, puntu hau Hirigintzako batzordetik diktaminatuta dator. Bere garaian martxan jarri zen lizitazio prozesu bat, prozesu ireki bat da eta prozesu horretara enpresa bakarra aurkeztu da, Construcciones Moyua.



Usurbilgo Udala

Egiaztatu da deialdian ezarritako baldintza guztiak ondo bete dituela bere eskaintzan.

Orduan, datu esanguratsuenak aipatuko ditut.

Lehenbizi, eskaintza ekonomikoari dagokionez, proposamenak osotara, gastu orokorrak, mozkin industrialak eta BEZa barne hartuta, 1.981.219 eurokoa da. Horrek esan nahi du guk lizitazioan aurreikusten genuen aurrekontua kasik %100 betetzen dela, %0,89ko murrizte bat edo jaitsiera bat dago besterik gabe.

Bestalde, guk eskatutako bermeak gainditu egin dituzte, eskatzen genuen, batetik, egiturari dagokionean, hamar urteko bermea, hor 15 urteko eskaintza egin dute. Instalazioetan hiru urtekoa eskatzen zen eta sei urtekoa eskaini dute. Eta obra amaierako bermea urtebetekoa eskatu eta hiru urtekoa eskaini. Horiek dira ondo baloratzen ziren gauzak eta hobetu egin dituzte.

Bada beste aspektu bat guretzat inportantea dena eta da langileen kontratazioan bete beharreko hitzarmena. Gure Udal honen ohitura du holakoetan eta, nahiko exigentea da, eskatzen duguna da Gipuzkoako eraikuntza hitzarmen kolektiboa betetzea; eta hori egiaztatu da horrela dela.

Bada beste aspektu bat eta da lan horrek birgaitze eta handitze obra horrek badituela berezitasun batzuk, obra espezifiko batzuk eta horietarako eskatzen genuen azpikontratazio espezializatuak egitea, bereziki geotermia instalakuntza egin behar delako, musika eskola izanda intsonorizazio obra on bat egin behar delako, egurraren lanketa berezi bat egin behar delako eta 4. atala izango litzateke teiltatu berdea edo begetala ere ikusten delako. Lau horietarako eskatzen da lan espezializatu bat egitea, horretarako espezializatuta dauden enpresen bidez.

Beste puntu bat da bermea, eskatu den bermea da adjudikazioaren %7 eta horrek esan nahi du kopurua dela 114.615,98, berme hori utzi beharko du enpresak.

Horrenbestez, hori da egiten den proposamena.

Nola eskaintza bakarra egon den eta eskaintza horrek betetzen dituen eskatutako baldintzak, aurkeztu den enpresa izendatzea eskaintza ekonomiko onena, hori da gaur hemen erabakiko genukeena.

Beraz, proposamenean hiru puntu azaltzen dira. Lehenbizi, Construcciones Moyua izendatzea eskaintza ekonomiko onena eskaintza bakarra delako. Bigarrenik, erabaki honen berri ematea eta errekerimendua egitea enpresari, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontaktatu hasita, hamar laneguneko epean, oinarri administratiboetako 14. klausulan zehazten diren agiriak eta dagokion behin-betiko bermea, lehen aipatu dudana, aurkeztu ditzan. Beraz, eskatzen zaio enpresari gehienez hamar laneguneko epean dokumentazioa aurkeztea. Eta, hirugarrenik, honen berri ematea bai enpresari eta baita ere kontu-hartzaileari.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Hirigintza batzorde informatzailearen irizpena azertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Espediente zkia: ID.05/2017-0483

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2018ko martxoaren 5ean egindako ezohiko bilkuran onartu zen Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko obra kontratua esleitzeko prozedura irekia. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal Kontratatzaile Profilean 2018ko martxoaren 8an iragarkia argitaratu zen.

Eskaintzak aurkezteko epearen barruan honako enpresa hau aurkeztu da: CONSTRUCCIONES MOYUA, SL.

2018/04/16an Kontratazio Mahaia bildu zen eta A kartazala ireki eta zuzena zela ikusi ondoren B kartazala ireki eta teknikariak hartu zuen balorapena egiteko.

2018/04/27an Kontratazio Mahaiaren aurrean B gutunazaleko balorapen txostena aurkeztu du teknikariak, pleguetako baldintza minimoak betetzen dituela adieraziz. Ondoren C kartazala ireki da eta eskaintza hau izan da:

- Eskaintza ekonomikoa:

	AURREKONTUA	PROPOSAMEN EKONOMIKOA (2 dezimalekin)
EXEKUZIO MATERIALAREN AURREKONTUA (PEM)	1.388.290,01	1.375.942'09
Gastu orokorrak	(13%) 180.477,70	178.872,47
Mozkin industriala	(6%) 83.297,40	82.556,53
EXEKUZIO KONTRATATUAREN AURREKONTUA	1.652.065,11	1.637.371,09
BEZ (%21)	346.933,67	343.847,93
AURREKONTUA GUZTIRA (BEZ BARNE)	1.998.998,78	1.981.219,02

- Kontrata bidez lana egiteko eskaintzen aurrekontuak murrizpen portzentajea suposatzen du, kontratuaren balio zenbatetsiaren arabera: 0,89%
- Eskainitako bermeak:
 - x Egituraren berme epea handitzea: urte gehigarriak: 5 urte gehiago.



Usurbilgo Udala

- x Eraikuntza edo instalazioen elementuetan izandako bizio edo akatsengatik, bermearen epean handitzea: urte gehigarriak: 3 urte gehiago.
 - x Bukaerako elementuetan edo obren amaierako elementuetan izandako bizio edo akatsengatik, kalte materialen bermearen epean handitzea: urte gehigarriak: 2 urte gehiago.
- Eraikuntzako sektorearen Hitzarmen Kolektibo orokorraren baldintzak hobetzen dituen Lan Konbenioa edo lan-baldintzak: bai, Gipuzkoako Eraikuntza Hitzarmen Kolektiboa

Teknikariak C gutunazala aztertu ondoren, Kontratazio Mahaiaren aurrean gutunazal honen balorapen txostena aurkeztu du, pleguetako baldintza minimoak betetzen dituela adieraziz.

Hortaz, Kontratazio Mahaiak honako erabaki proposamen egin du:

LEHENA: CONSTRUCCIONES MOYUA, SL-k eginiko eskaintza izendatzea eskaintza bakar eta hortaz eskaintza ekonomiko onena.

BIGARRENA: CONSTRUCCIONES MOYUA, SL-ri erabaki honen berri ematea eta errekerimendua egitea, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 laneguneko epean oinarri administratiboetako 14. klausulan zehazten diren agiriak eta dagokion behin-betiko bermea (114.615'98 euro) ezarri izana aurkeztu ditzan:

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri CONSTRUCCIONES MOYUA, SL eta Kontu-hartzailletza sailari ematea.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2018ko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta, Mirari Azurmendi eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, aho batez, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: CONSTRUCCIONES MOYUA, SL-k eginiko eskaintza izendatzea eskaintza bakar eta hortaz eskaintza ekonomiko onena.

BIGARRENA: CONSTRUCCIONES MOYUA, SL-ri erabaki honen berri ematea eta errekerimendua egitea, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 laneguneko epean oinarri administratiboetako 14. klausulan zehazten diren agiriak eta dagokion behin-betiko bermea (114.615'98 euro) ezarri izana aurkeztu ditzan.

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri CONSTRUCCIONES MOYUA, SL eta Kontu-hartzailletza sailari ematea.”



Usurbilgo Udala

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapiain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

ALKATEA: Orain jada erabaki hau hartu dugula hamar eguneko epe hori edukiko luke gehienez ere enpresak dokumentazioa aurkeztu dezan eta dokumentazio hori behar den bezala aurkezten bada, orduan, berriz ere hurrengo plenoan ja erabakiko genuke obra esleitzea, gaur hemen erabaki da zein den eskaintza onena.

3.- GALDERA-ESKAERAK.

Ez da galdera edo eskaerarik izan.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:15etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.